



Plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendan lehentasun ordena zehazteko puntuazio irizpideak



Plazak kudeatzeko programako plaza hutsak esleitzeko zerrendan sartuko dira espedienteak, alderdi hauetako bakoitzari dagozkion puntuazioen arteko batuketa egin ondoren lortzen den guztizko puntuazioa adierazita dutela:

- *Mendekotasun gradua*, eta hala dagokionean. *maila*: Horren arabera, **270 puntu** emango dira, **gehienez** jota.
- *Banakoaren ahal ekonomikoa*: Horren arabera, **12 puntu** emango dira, **gehienez** jota.
- *Familia berriz biltzea*: **13 puntu**.
- *Zentrotik lekualdatzea*: Horren arabera, **12 puntu** emango dira, **gehienez** jota.

A) Mendekotasun graduaren arabera -eta maila hala dagokionean-, puntuazio hauek esleituko dira:

Mendekotasun gradua (hala dagokionean, maila)	Puntuak
3.2 gradua	270
3 gradua	240
3.1 gradua	210
2.2 gradua	180
2 gradua	150
2.1 gradua	120
1.2 gradua	90
1 gradua	60
1.1 gradua	30
0 gradua	0

B) Era berean, banakoaren ahal ekonomikoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako gizarte zerbitzuei aplikatu dakizkiekeen prezio publikoak arautzen dituen araudian ezarritako irizpideak kontuan hartuta (*), taula honetako puntuazioak esleituko dira:

Lanbide arteko gutxieneko soldata %	Puntuak
% 100 arte	12
% 130	11
% 165	10
% 205	9
% 250	8
% 300	7
% 355	6
% 415	5
% 480	4
% 550	3
% 625	2
% 705	1
% 705 baino gehiago	0

(*) Ez da kontuan hartuko pertsona eskatzailearen ohiko etxebizitza, ezta egoitza publiko batean edo egoitza pribatu batean sartzearatik erabiltzeari uzten badio ere.

C) Familia berriz biltzea:

- Pertsona eskatzaileak bere ezkontidea edo ezkontzaren antzeko lotura baten bidez lotutako pertsona (behar bezala baimenduta) gizarte zerbitzuen foru sareak emandako zerbitzu bateko plaza batean sartuta duenean: **13 puntu**.

D) Zentrotik lekualdatzea:

- Ez da puntu bakar bat ere emango, dokumentazio osagarrian lehentasunezko zat adierazitako udalerriko hirigunearekin hiri barruko garraio bidez lotuta dagoen zentro bateko plaza batean sartu ondoren lekualdatzea eskatzen bada.
- Puntuazioak emango dira, dokumentazio osagarrian lehentasunezko zat adierazitako udalerriko hirigunearekin hiri barruko garraio bidez lotuta ez dagoen zentro bateko plaza batean sartu ondoren lekualdatzea eskatzen bada. Puntuazioak irizpide hauen arabera emango dira:
 - **Familiakoen laguntza** edo familiako harremanak, zentroan sartzeko unean: 4 puntu, baldin eta zerbitzuaren pertsona onuradunak 70 urtetik gorako ezkontidea badu edo ezkontzaren antzeko lotura baten bidez lotutako pertsona (behar bezala baimenduta) eta ez badu Araban errolatuta 70 urtetik beherako lehen mailako edo bigarren mailako familiako bakar bat ere.
 - Esleitutako zerbitzuaren eta lehentasunezko gisa adierazitako udalerraren hirigunearen arteko **distantzia** eta **zenbat denbora egongo den zentroan**:

Zentroaren kokapena	Zenbat denbora egongo den zentroan	Puntuak
Lehentasunezko udalerritik 20 km-ra baino gutxiagora	8 hilabete baino gutxiago	0
	8 hilabete	1
	9 hilabete	2
	10 eta 12 hilabete artean	3
	12 hilabete baino gehiago	4
Lehentasunezko udalerritik 20 km-ra baino gehiagora	4 hilabete baino gutxiago	0
	4 hilabete	1
	5 hilabete	2
	6 hilabete	3
	7 hilabete	4
	8 hilabete	5
	9 eta 10 hilabete artean	6
	11 eta 12 hilabete artean	7
	12 hilabete baino gehiago	8